



## **JUAN MARI ABURTO BILBOKO ALKATEAK *BILBAO ART DISTRICT-EN* ('ARTEEN ASTEA') ERAKUNDE INAUGURAZIOA EGIN DU SEKTOREAREKIN**

- **Ehun pertsona inguru –artistak, galeristak, sektoreko profesionalak eta unibertsitateko, museoetako eta arte ekoizpeneko zentroetako ordezkariak, besteak beste– bildu dira edizio berri honen gune nagusia den Zabalguneko eraikinean, “Bilbao Art District”en inaugurazioaren erakunde topaketan.**
- **Alkateak “*Bilbao Art District*”ek gauzatzen duen eginkizunaren garrantzia azpimarratu du. Proiektua Bilboko Udalak sustatzen du, Aldundiaren laguntzaz eta hiriko museo nagusien (Guggenheim, Arte Ederren Museoa...), EHUren, aretoen, arte-galerien, sorkuntza zentro berrien eta abarren partaidetza aktiboaz, hiria kulturaren aldetik dinamizatzeko, sektore osoa biltzeko eta jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren iturria den aldetik sormenak duen garrantzia aditzera emateko asmoz.**
- **‘Arteen Astea’n antolatutako ekintza asko gaurtik asteburura bitartean egingo dira: erakusketak, artistekiko elkarrizketak eta topaketak, bisita gidatuak eta pertsona guztientzako tailerrak egongo dira, beste plan batzuen artean. Guztira, ehun jarduera aurreikusi dira hiriko hainbat tokitan. Izan ere, edizio hau unera arte egin direnen aktiboena eta asmo handiena duena izango da. Alberto Salcedo Bilboko artistak “Bilbao Art District” honetarako beren-beregi hariarekin, 10.000 metrorekin, prestatu duen obra erakutsi da gaur Zabalguneko eraikinean.**
- **Juan Mari Aburtok Juan Manuel Lumbreras galeria ere bisitatu du, Fernando eta Vicente Roscubas anaien eta Amaya Suberviolen erakusketak hartzen dituena.**

*Bilbon, 2017ko maiatzaren 19an.-* Juan Mari Aburto Bilboko alkateak Bilbao Art District-en esparruan maiatzean antolatzen den ‘Arteen Astea’ abiarazteko ekitaldi ofiziala egin du gaur, hiriko sektore artistikoko eragileekin batera. Ehun pertsona inguru bildu dira Zabalguneko eraikinean: artistak, galeristak, kultur eragileak, sektoreko profesionalak eta EHUko Arte Ederren Fakultateari, Bilbao Arte Fundazioari, museoiei eta arte ekoizpeneko espazioei lotutako pertsonak egon dira, besteak beste.



Alkateak hiria kulturaren aldetik dinamizatzeko, sektore osoa biltzeko eta jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren iturria den aldetik sormenak duen garrantzia aditzera emateko orduan Bilbao Art District-ek gauzatzen duen eginkizuna nabarmendu du, baita Bilbo artea sortzen duen hiri gisa sustatzeko ere, bertan sortzaileek beren talentua garatzen laguntzen dien ekosistema aurkitzen dutela.

Sektoreko eragileekiko topaketaren aurreko urrats gisa, alkateak Juan Manuel Lumbreras galeria bisitatu du, Fernando eta Vicente Roscubas anaien *En paralelo* eta Amaya Suberviolen *Tierra de Nadie* erakusketak hartzen dituena. Bisitan, Juan Mari Aburtok arte-galeriek hiriaren kultur sarean egiten duten ekarpenaren garrantzia nabarmendu du, baita artearen hedatzaile eta tokiko ekonomiaren sustatzaile gisa duten eginkizuna ere.

*“Herritarrei artea helaraztea”*. Horixe da alkateak Bilbao Art District-erako zehaztu dituen lehentasunezko helburuetako bat, eta, haren hitzetan, *proiektuak “bere eragingunea hedatu nahi du, hiri osoa artez betetzeko eta herritarrek parte-hartze aktiboa izateko”*. Aldi berean, ekimenak artearen sektorea gero eta neurri handiagoan erakarri nahi duela esan du, haien iguripen profesionalak asetzeko diseinatu den programazioaren bidez. Amaitzeko, Juan Mari Aburtok nabarmendu du edizio hau *“aktiboena eta asmo handiena duena”* dela, *“edukiei, proposamenei eta iraupenari dagokienez”*.

Alkatearen eta arte eta kultur eragileen arteko topaketa egiteko unean, Alberto Salcedo Bilboko artistak azken ukituak ematen zizkion hamar mila metro hariz egin duen instalazioari; obra horrek Bilbao Art District-en kontzeptua bera sinbolizatzen du, erakundeak, herritarrak eta sektorearekin zerikusia duten agenteen eta profesionalen sarea lotzen dituen ekimena den aldetik. Halaber, Zabalguneko eraikinaren barnean *Bilbao Art District egunez egun* erakusketa dago, alkateak bisitatu duena eta gaur egun Bizkaiko hiriburuan beren lana garatzen duten artisten obrak biltzen dituena.

### **Artistekiko elkarrizketa eta topaketak, Zabalguneko eraikinean eta galerietan**

Zabalguneko eraikina ‘Arteen Aste’aren bihotz bihurtu da aurten, eta bihar, larunbatean, estatu mailako ospe handia duten parte-hartzaileekiko elkarrizketak



izango ditu. Eguerdiko hamabietatik aurrera, Jesús Carrillo Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Arte Garaikideko irakasleak, Nerea de Diego artista bisualak eta Natxo Rodríguez EHUko Arte Ederren Fakultateko irakasleak hitz egingo dute. Arratsaldeko 16:00etatik aurrera, honako hauen txanda izango da: Santi Eraso Artelekuko zuzendaria, Carolina del Olmo Madrilgo Arte Ederren Zirkuluko Minerva aldizkariko zuzendaria eta María Mur Dean Consonni proiektu artistikoen ekoiztetxeko zuzendaria. Eta arratsaldeko zazpitan, Fermín Jiménez Landa eta Mabi Revuelta artistek eta Javier San Martín arte teorialari eta kritikariak hartuko dute parte.

Gaur eta bihar bitartean, herritarrek artistak eta artearen profesionalak zuzenean ezagutzeko aukera daukate. Gaur arratsaldean topaketak aurreikusi dira honako hauekin: Esau de León (Vanguardia galeria), Fernando eta Vicente Roscubas (Lumbreras galeria), María López (Espacio Marzana), Khalid El Bekay komisarioa (MH Art Gallery), Max Camacho (Mongolia Gunea), Jorge Cabrera arkitektoa (Spazio Ranieri) eta Rubén Beca (Histeria Kolektiboa). Larunbat goizean hitzordua honako hauekin izango da: Juana Lor (Spazio Ranieri), Ana Ester Fernández Calle eta Luis Candaudap (Narata Shop), Juan Carlos del Barrio koadernatzailea (Aerre Desing), Martín López (Espacio Marzana) eta Khalid El Bekay komisarioa (MH Art Gallery).

### **Familia prozesu artistikoa, erakusketa, performancea eta dokumentala biltzen dituena**

‘Arteen Astea’ren barnean, prozesu sortzaile berezi bat gauzatzen da, Edu López artistaren, María alabaren eta Martín semearen esku-hartzea izan duena. Espacio Marzana galeriak Edu Lópezen *Planeta sin nombre* erakusketa hartzen du, eta haren alabak performance bat egingo du horren gainean gaur, arratsaldeko 19:00etan. Familia barneko sormen eta arte prozesu horren amaiera gisa, Martín Lópezek *Sala de máquinas* dokumentala aurkeztuko du, erakusketaren eta performancearen jatorriaren eta garapenaren berri ematen duena.



## **Pertsona guztientzako tailerrak dituen asteburua**

Asteburua Bilbao Art District-ek antolatu dituen tailer guztietan parte hartzeko unea da. Picassoren *Gernika* haur begirada batetik berrinterpretatuko da, tailer bati esker. Horretan haurrek koadro ospetsuaren zatiak pintatuko dituzte oihal baten gainean, eta oihal hori erabilia kometak egin, eta Arriaga plazan hegan jarriko dituzte. Ekitaldia 11:00etan hasiko da, eta parte-hartzea librea izango da, kometen kopurua osatu arte. Halaber, haurrak eta haien familiak Isabel Garayren obraren inguruko tailerreko protagonistak izango dira; tailerra larunbatean egingo da, 11:00etatik 13:00era bitartean Rekalde aretoan, eta aldez aurretik izena eman behar da honako helbide elektronikoa honetan: [salarekalde@bizkaia.eus](mailto:salarekalde@bizkaia.eus).

*Horma-irudigintza praktikan* hastea Yimby Street espazioko (Uribitarte erranplak, 1) jarduera baten helburua da. Jarduera hilaren 21era, igandea, arte egingo da goizeko eta arratsaldeko saioetan, adin-tarte ezberdinen arabera. Sarrera librea izango da, edukiera bete arte. Horrez gain, *Autoerretatua* Print Party tailerrak, Josune Urrutia irudigileak zuzentzen duenak, ikusleak gonbidatzen ditu grabatu baten ariketa artistikoa egitera. La Taller galerian egingo da, larunbatean, arratsaldeko 18:00etan, eta aldez aurretik izena eman behar da Bilbao Art District-en webgunean ([www.bilbaoartdistrict.com](http://www.bilbaoartdistrict.com)).

## **Bisita gidatuak, hiritik sakabanatuta dagoen artea ezagutzeko**

Asteburua herritarrei gure kalean dagoen eta arte ekoizpeneko zentroetan sortzen den artea hurbiltzeko unea ere bada. Horretarako, Bilbao Art District-ek ibilbideak eta bisita gidatuak antolatu ditu, aurren gehiago izango direnak eta gai berriak eskaintzen dituztenak. Berritasun gisa, *Atzo eta gaur. Bilboko Zabalgunearen artea ikusten* eta *Pasealdia artean zehar, bildumazaletasunetik praktika artistikora* ibilbideak daude. Lehenengoa Ismael Manterola Artearen Historiako irakasleak gidatuko du, eta gaur eta bihar egingo da, arratsaldeko 17:00etatik aurrera; bigarrena, berriz, Alberto Ipiña bildumazaleak eta Zaloa Ipiña artistak gidatuko dute, eta gaur, ostiralean, egingo da, arratsaldeko 17:00etan.



Bestalde, *Bilbao underground* ibilbidea plan onena da Bilbo Zaharrean, Abandoibarran eta Zorrotzaurren dauden arte espazioak bizikletaz ezagutzeko Laura Díezen eskutik, larunbatean (10:30 h) eta igandean (16:00 h). *Safari urbanoa: Horma-arte garaikidea Bilbon* ibilbideak Bilbo Zaharretik sakabanatuta dauden kaleko arte adierazpen horren laginak berrikusiko ditu, Sergio García Bayón gidari izanda, larunbatean, arratsaldeko 17:00etan. Beste urte batean ere, 'García de la Torre Arquitectos' estudioak hiriko arkitektura modernista berrikusiko du, *Modernismoaren aztarna Bilbon* izeneko bisitan; gaur izango da, arratsaldeko bostetan.

Bisita gidatuak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez egingo dira, eta, horietan parte hartzeko, beharrezkoa da aldez aurretik eta doan izena ematea Bilbao Art District-en [webebgunean](#) edo 944205328 – 944205330 telefono-zenbakietan.

**'Arteen Astea'ren programa osoa hemen dago eskuragarri:**

**[www.bilbaoartdistrict.com](http://www.bilbaoartdistrict.com)**